

# CHILLIDAREKIN DANTZAN

## IBILBIDE TEMATIKOA

HAUR HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOKO ETA  
LEHEN HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLOKO  
IKASLEENTZAT

# STM

## San Telmo Museoa

## IRAKASLEENTZAKO KOADERNOA

**Erakunde laguntzaileak:**



**Patrono pribatuak:**



## Helburuak

- Chillida eskultorea eta bere obra ezagutu
- San Telmo museoan topa ditzakegun Chillidaren artelanak eta bere eskultura publikoa aztertu
- *Haizearen orrazia* eskultura abiapuntutzat hartuta, eta gorputzaren eta musikaren laguntzaz, psikomotrizitatea landu eta artelan honen ezaugarri plastikoak aztertu

## Hartzaileak

Haur hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleak.

## Metodologia

Jarduerak Euskal Artearen erakustareto iraunkorrean bisitaldi gidatua eta hezkuntza tailerreko ariketa hartzen ditu bere baitan:

- Euskal Artearen aretoa: Chillida eskultorearen bizitza eta obraren aurkezpena
- Hezkuntza tailerrean: musika eta gorputzaren laguntzaz tailer ludikoa

## Iraupena

- Erakusketaren bisitaldi gidatua: 30 min.
- Tailerra: 30 min.

### ARIKETAREN HELBURUA

- ❑ Chillida eskultorearen bizitza eta artelanak ezagutu
- ❑ Chillidak landutako hainbat eskulturen materialak aztertu

### “CHILLIDA ETA NI” ipuinaren irakurketa

*Ipuina irakurtzen hasi aurretik hainbat galdera:*

*Ba al dakizue zein zen Chillida?*

*Non jaio zen?*

*Zer gustatzen zitzaion egitea txikia zenean?*

*Zer ikasi zuen?*

*Eskultore bihurtu aurretik zein lanbidetan aritu zen?*

*Ipuina irakurri eta gero:*

*Ipuina gustatu zaizue?*

*Egon al zarete noizbait Chillidaren eskulturak topa ditzakegun lekuren batetan? Non?*

*Txikiak ala handiak al dira bere artelanak?*

*Non daude kokatuta? Parkean? Mendian? Hondartzan?*

*Zein materialetaz eginak daude? Zurez? Burdinaz? Harzuriz? Buztinaz? Harritz? Plastikoz?*

**Ahozko ariketa, gaiari ekiteko galdera eta erantzun bidez ikasleekin batera egiten dena, Euskal Artearen aretoan.**



Materialen inguruan azterketak



### ARIKETAREN HELBURUA

- *Haizearen orrazia* eskultura abiapuntutzat hartuta, eta gorputzaren eta musikaren laguntzaz, psikomotrizitatea landu eta artelan honen ezaugarri plastikoak aztertu

### “CHILLIDAREKIN DANTZAN

*Aretoetan Chillida eskultorea eta bere obra ezagutu, eta hezkuntza tailerrean eskultura mugikorrak egiten ditugu Vivaldiren musikari jarraikiz.*

